



“Aterpeen estaldurak: Informazio garrantzitsua klub eta pertsona federatuentzat”

Joan den azaroaren 12an, EMF-FVMren urteko bigarren ohiko batzarra egin zen Agurainen. Bertan, 2023ko aurrekontua eta jarduerak onartu ziren.

Era berean, bertaratutako klub guztien baiezko botoarekin onartu zen – bi abstentzio izan ezik – sortu berri den "Asociación Correspondencia de Refugios" elkartearekin bat egitea.

Elkarte horrek Kataluniako, Aragoiko, Nafarroako eta Asturiasko federazioen aterpe guztiak biltzen ditu -elkarte hori sortu zuten bazkideak-, bai eta etorkizunean elkarte horretara atxikiko diren beste federazio autonomiko batzuetako aterpeak ere. Horrek esan nahi du penintsulako Pirinioetako aterpe guztiak eta Asturiasko Europako Mendien aterpeak elkarte berri horren kide izatera pasatu direla eta elkarte horren arabera antolatuko direla, Fedmetik kanpo.

Atxiki ondoren, eta EMF-FVMren urteko aurrekontutik ateratzen den federatu bakoitzeko 1€ren truke, elkarte berriak euskal federatu guztiei deskontuak ematen dizkie aterpe horietan, eta orain arte Fedme lizentzia lortuz gero baino ezin ziren deskontuak egin. Beraz, 2023an nahikoa da Euskal lizentzia lortzea aipatutako 4 federazio horien (Pirinio penintsularrak eta Asturiasko Europako mendiak) eta etorkizun hurbilean atxikitzen direnen aterpeetarako.

Fedme lizentzia, aurrerantzean ere, elkarte berri honetara ez atxikitzea erabakitzen duten federazio autonomikoen aterpeetan deskontuak lortzeko baldintza izango da, baita atzerriko aterpeetan ere.

Adeitasunez,



Zigor Egia

(EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIO-ko presidentea)